

2016KO ABENDUAREN 21EAN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko zazpirak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

1.- GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN ESTATUTUEN ALDAKETA.

2.- MEMORIA HISTORIKOAREN LEGEDIAK ADIERAZITAKOA JARRAITUZ ZENBAIT KALEEN IZENA ALDATZEARI BURUZKO PROPOSAMENA.

ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

ALKATE-LEHENDAKARIA

Joseba Izaguirre Arocena Jna. (Zegama Lantzen).

ZINEGOTZIAK

Maria Pilar Elorza Inchausti And. (Zegama Lantzen).

Izaskun Igoa Arizcorreta And. (Zegama Lantzen).

Juan José Gorrochategui Larrea Jna. (Zegama Lantzen).

Ibon Zabaleta Urbizu Jna. (Zegama Lantzen).

Imanol Garmendia Iruretagoyena Jna. (EH Bildu).

Urko Gomez Ropón Jna. (EH Bildu).

Olaia Elorza Iñarra And. (EH Bildu).

Maria Luisa Gorrochategui Irastorza And. (EH Bildu).

EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

Legezko kide guztiak bertaratu dira.

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

1.- GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN ESTATUTUEN ALDAKETA.

Gipuzkoako Ur Kontsortziotik, erakundearen Estatutuen aldaketa bideratzeko idatzia bidali dute.

Horren arabera, 27/2013 Legeak, abenduaren 27koak, Toki Administrazioaren arrazionalizazioa eta jasangarritasunari buruzkoak, 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren hainbat artikulua aldatzen ditu, hogeigarren xedapen gehigarri bat sartuz:

1. Kontsortzio bakoitzaren estatutuek zehaztuko dute ze herri administrazioa atxikituta

egongo den, halaber bere erregimen organikoa, funtzionala eta finantzarioa hurrengo ataletan aurreikusitakoaren arabera.

2. Ondorengo lehentasun irizpideen arabera, ekitaldi ekonomikoaren lehen eguneko egoerari dagokiolarik, kontsortzioa atxikituta geratuko da, aurrekontu deialdi bakoitzean eta epe horretarako, honako herri administrazioari:

a) Gobernu batzordean botoen gehiengoa duena.

Kontsortzioaren kasua administrazio hori Gipuzkoako Foru Aldundia da.

Hortaz, estatutuen hirugarren artikulua egokitu eta honela idatzita geratuko litzateke:

“ 3. Artikulua. Nortasuna eta gaitasun juridikoa

1. Kontsortzioak berezko nortasun juridikoa du eta jarduteko gaitasun osoa bere helburuak betetzeko.

2. Azaroaren 26ko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen hogeigarren Xedapen Gehigarriaren 1. Atalean ezarritakoaren xedeetarako, Kontsortzioa Gipuzkoako Foru Aldundiari atxikita geratzen da. Foru Arauak atxikitze horren edukia eta norainokoa zehaztuko du.

Gipuzkoako Ur Kontsortzioko Batzar Nagusiak 2016ko urriaren 27an ospatutakoa, aipatutako aldaketa hasiera batean onartu zuen.

Bestalde, behin betirako onartu dadin, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituen apirilaren 10eko, 6/2007 Foru Arauaren 23. Artikulua arabera, beharrezkoa da udal kontsortziokideek ere, osoko bilkuraren erabakiaren bitartez, aipatutako aldaketa onartzea.

Zentzu horretan, Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako bost zinegotzien eta EH bildu taldeko lau zinegotzien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehen.- Adierazitakoaren arabera, Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren Estatutuen 3. Artikulua aldaketa onartzea.

Bigarrena.- Erabaki hau Gipuzkoako Ur Kontsortzioari jakinaraztea.

2.- MEMORIA HISTORIKOAREN LEGEDIAK ADIERAZITAKOA JARRAITUZ ZENBAIT KALEEN IZENA ALDATZEARI BURUZKO PROPOSAMENA.

Alkateak adierazten du, memoria historikoaren legedian adierazitakoa jarraituz, herriko Aseginolaza Anaiak eta Juan Telleria kaleen izenak aldatzea aztertzen ari dela.

Zentzu honetan, aztertutakoaren arabera, persona horiek izan zituzten aurrekari frankistak kontuan izanik, izen aldaketa bideratzea proposatzen da, horrenbestez, izen berria jartzeko azterketa egingo delarik, toponimia eta bestelako aukera batzuk aztertuz.

Bilkurakideak, erabakirik hartu gabe, proposamenarekiko oniritzia adierazten dute aho batez.

- Puntu honen ondoren, Imanol Garmendia Iruretagoyena zinegotziak (EH Bildu), gabonetan kontsumoari buruz, segurtasun eredu propio bati buruz eta birziklapenaren aldeko eta lurpe zabortegean hiri hondakin nahasiak jasotzeari buruz aurkeztutako mozio idatziak aztertuko diren galdetzen du. Alkateak adierazten du, bere irizpidea herriko alorretan eragina zuzena duten gaiak aztertzea dela, eta kasu hauetan ez duela iritzi hori. EH Bilduko taldekideak azalpen horrekiko desadostasuna adierazten dute, bilkurakideak gaiaz eztabaidatuz.

Aztertzeko gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko arratsaldeko zortzirik direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasoarazteko, nik egiaztatutako eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

Eginbidea.

Aurrean transkribaturiko akta, orri dituela jasotzeko, zenbakidun paperan zenbakitik zenbakira eta Udalak emandako zenbakietan, zenbakitik zenbakira jasota geratu delarik.

Zegama, 2016kok

**O.E./ V°B°
ALKATEAK/EL ALCALDE**

Diligencia.

Para hacer constar que el acta que antecede tiene folios, numerados del al en número de papel timbrado y del al en numeración dada por el Ayuntamiento.

Zegama a de de 2016.

IDAZKARIAK/ EL SECRETARIO